

LEZO

## Contrataciones para la atención familiar para los lezoarras

:: LUISMA RODRÍGUEZ

**LEZO.** El Ayuntamiento de Lezo ha publicado el pliego de condiciones técnicas y administrativas para la contratación del servicio de los diferentes programas de intervención familiar. Los destinatarios del programa de intervención terapéutica y/o socioeducativa son las familias de Lezo con personas menores valoradas por los Servicios Sociales en situación de riesgo leve de desprotección o en situación de desprotección de gravedad moderada.

Las funciones del servicio mencionado deberán desarrollar actuaciones terapéuticas y educativas con los siguientes objetivos:

«Ofrecer a los padres y tutores legales un espacio que permita mayor conocimiento y acercamiento empático a las necesidades básicas del menor, así como favorecer dentro de la dinámica familiar los cambios necesarios que permitan ofrecer a los menores un contexto seguro».

También tendrán que promover que «los padres o tutores legales de estos niños tomen conciencia de su posible responsabilidad



Va dirigido a las familias. :: I.A.

en el malestar de sus hijos», así como «proporcionar a los padres o tutores legales pautas educativas adecuadas».

Por último persiguen el «ayudar a los niños o adolescentes en esta situación a elaborar experiencias traumáticas que hayan vivido de tal manera que las mismas no les impidan continuar con su proceso de maduración» y también pretenden desde dicho servicio «hacerles ver a los niños o adolescentes que existen otros modelos de conducta y de relación sanos».

ERRETERIA

## El Ereintza Aguaplast recibe al Teucro

:: L. R.

**ERRETERIA.** Los dos máximos representantes del balonmano local, el Ereintza Aguaplast y del fútbol, el Touring, coinciden este fin de semana disputando ambos partidos en Erreterria.

Este sábado a las 19.30 el equipo de División de Honor Plata del Ereintza recibirá al Teucro gallego, un histórico del balonmano español, a las 19.30 en busca de su primer triunfo de la temporada.

Fútbol

Por su parte el Touring de la categoría de Honor Regional, tras caer

la pasada semana in extremis en Lasarte, busca volver a la senda del triunfo.

Los rojillos recibirán también este sábado a las 16.30 al Aloña Mendi de Oñati.

Beti Ona

El Beti Ona de 1ª Regional también juega en casa y lo hará el sábado en el Estadio de Beraun a las 15.45 recibiendo al Isturin F. C..

Además el 1ª cadete juega el sábado a las 17.30 en Beraun contra el Hondarria y el Infantil Txiki, recibe el mismo día a las 13.30 al Lengokoak K. E..



Fútbol. El Beti Ona juega el sábado en Beraun. :: ARIZMENDI

OIARTZUN

## Oiarpeko Mikel Martinez eta Ander Imaz bikoteak irabazi du Aizarnazabalgo txapelketa

Bestalde, Gipuzkoako Txapelketan Oiarzungo pilotariak zazpi partida jokatu dituzte eta hirutan irabazi

:: GOIZARIN

**OIARTZUN.** Oiarpeko Mikel Martinez eta Ander Imaz bikoteak erraz irabazi zuten Aizarnazabalgo Txapelketako finala. Horrela, 22-8 nagusitu zen Zelaia eta Xanet Imaz bikotearen kontrako partidari.

Bestalde, Gipuzkoako Txapelketan murgilduta dabilta Oiarzungo pilotariak. Zazpi partida jokatu dituzte eta hirutan atera dira garai. Hala, Gazte Mailan, binaka Xabier Azpiroz-Aitzol Arzallus (Oiarpe)/Labaka-Erasun (Zizurkil): 4-22; Gazte Maila, binaka. 1. Maila Zigor Salaberria-Andoni Flores (Oiar-



Martinez eta Imaz. :: GOIZARIN

pe)/Zabala-Murua (Txapagain): 12-22; Senior, banaka Jokin Hernandez (Oiarpe)/Erostarbe (Zazpi iturri): 6-22; Senior, binaka, 2. Maila Andoni Ugalde-Iñigo Ugalde (Oiarpe)/Mujika-Labaka (Aurrera Saiatz): 22-18; Senior, binaka, 1. Maila Mikel Martinez-Ander Imaz (Oiarpe)/Sukia-Biain (Aurrera Saiatz): 22-19; Kadete Maila, binaka, 2. Maila Oihan Lopez-Egoitz Etxabe (Oiarpe)/Hernani: 9-22; eta Kadete Maila, binaka, 1. Maila Imanol Ugalde-Ekain Etxeberria (Oiarpe)/Garmendia-Irizar (Lazkao): 22-17.

Azkenik, Olazar Txapelketan, senior binaka, Usurbilgo Santxo-Oiarpeko Ander Imaz bikoteak 17-22 galdu zuten Elezkano-Kastillo bikotearen kontra. Titin III Txapelketan, berriz, Haur Maila, binaka Lazkao-Zubizarreta-Oiarpeko Ekain Etxeberria bikoteak 18-11 irabazi zion Alberdi-Aizpitarte bikoteari.



Haurtzaro ikastolakoak Jocelyn Bell Burnell astrofisikariarekin.

## Haurtzaroko ikasleak top@DIPC - Zientziarekin solasean! topaketan

:: GOIZARIN

**OIARTZUN.** Donostia International Physics Centerrek (DIPC) top@DIPC - Zientziarekin solasean! topaketaren edizio berri bat antolatu du, Nobel saridunen eta bigarren hezkuntzako ikasleen arteko topaketa. Haurtzaro ikastolako DBH 4. mailako lau ikasle parte hartu dute astelehenean egin zen saioan: Markel Galdos, Izar Gaztelumendi, Larraitx Etxebeste eta Ane Lizarraga izan ziren Eureka museoan.

Hala, «V. edizio horretan ikasle gazteok punta-puntako zientzialariarekin hitz egiteko aukera izan dugu, baita Nobel saridun batekin ere. Eta haiei gurtzie geure zalantzak azal-

du eta galderak egin ahal izan dizkiegu zuzenean» adierazi dute oiarzuar gazteek. «Interesgarria iruditu zaigu topaketa hori. Eta nahiz eta oso zailak ziren esplikatu beharreko kontzeptuak, saiatu dira guk ulertzeko moduan hitz egiten. Zientzia erakargarria dela esan digute eta gu animatzen saiatu dira zientzialariak izateko. Bestalde, taldean lan egitea oso garrantzitsua dela adierazi digute. Haien ikerketetan, askotan, ez dutela jakiten nora iritsiko diren, baina bidea eta lana dela garrantzitsua diote. Nahiz oso pertsonaia garrantzitsuak eta ospetsuak izan oso gertukoak azaldu zaizkigu» azpimarratu dute.

## Irekita Emakumea Pilotari egitasmoan izena emateko epea

:: GOIZARIN

**OIARTZUN.** Emakumea Pilotari egitasmoan parte hartu nahiz dutenek izena emateko epea irekita dute. Emakumezkoak paletaren mundura hurbiltzeko intentzioarekin, kirolean emakumearen presentzia gehitzeko eta emakumeak kirola egiteko ohitura osasuntsua hartzerantz bideratuta dago ekimena. Oiarzungun, 2009an jarri zen martxan eta ordutik, hamarnaka emakumezko parte hartu dute ikastaroan.

18 urtez goitiko emakumeek parte hartu dezakete egitasmoan. Paletan aritzeko beharrezko materiala teknikariak eramango du saioetara. Irakasle lanetan Patri Espinar arituko da. Izena emateko epea hilaren 11n bukatuko da. Hiru modu eskaintzen dira horretarako: Elorsoro kiroldegiko harreran, 665 988 588 telefonora deituta edo teknikaria2.pilota@kirolak.net helbidera e-maila idatzita. Urte oso ikastaroaren prezioa 115 € izango da. Prezio horretan ikastaroaz gain, aseguru ere sartuta dago. Paleta saioak astelehenero izango dira (urriaren 14tik ekaina bitartean) Haurtzaro Ikastolako pilotalekuan, 19:30etik 21:00etara.

Emakumea Pilotari ez da emakumezkoen kirola sustatzeko Udaletik egiten den ahalegin bakarra. Duela hiru ikasturte 10 eta 16 urte arteko neskentzako paleta eskola ere martxan jarri zen.